## Editorial

# Etorkizuna irudimenean dago

*EZ dago argi pertsonok garen gauzak aldaerazten dituztenak edo zirkunstantziek beraiek aldaerazten gaituzten gu (inork ere ez du oraindik argitu zein izan zen lehenago, arraultzea edo oiloa), baina egia dena da guztia aldatzen ari dela, gauza batzuk arinago, eta pertsonok ere aldatzen garela, eta aldatzen ez direla ematen duten egoera edo jardueraren aurrean dugun gure jokamoldea bera ere.*

*Egokitzearen arrakasta aldaketak eta berauen joera egokiro aztertzeko gaitasunean datza, eta baita egoera berriari eta etorriko direnei aurre egiteko tresna egokiak erabiltzeko gaitasunean ere.*

*Hau danau esanda, galdetu egin behar diogu gure buruari mendizaletasunaren egitura moldatzen ari den ala ez beregan eragina duten aldaketen aurrean. Bete egin dira jadanik Federakundearen 75 urteak eta Everest gailendu genuenetik 20 urte eta 20000 federatu baino gehiago gara gaur egun. ¿Honek ez du esan nahi ezer ere? ¿Eraman gaitzaten uzten ari gara edo etorkizuna asmatzen ari gara?*

*Orain dela 30 urte gazteei igortzen zitzaien mendizaletasunaren ia zirkunstantzia guztiak aldatu egin dira, eta ez du ematen, ez erakunde-mailan eta ez antolamendu-arloan ere, kirol honek gaur egun duen zabalkuntzari dagokion estrategia berririk hartzen ari garenik.*

*Beraz, argi dago gai honi buruz eztabaidatu beharra dagoela eta horixe da izan lerro hauen helburua: hausnarketa bultzatu, dinamika berria planteiatu dadila erakundean, funtzionamenduan eta Federakundeko eskoletako edukinetan ere.*

*Hasteko, kirolari buruzko ezagupen eta jarreren igortzaileak diren heinean, dagokien aintzat hartzea eman beharko litzaieke. Hortik aurrera, betidaniko "eskualdekako" egitura hori aprobetxatu beharko litzateke, aldizkako ikastaro bizkorragoak, dinamikoagoak eta mugikorragoak eskaintzeko.*

*Edukin berriak izango lituzketen ikastaroak izan beharko lirateke: metereologia, norabidetzea, GPSa, elurroldeak, inguruaren ezagupena, elikadura, mantenimendua eta prestaketa fisikoa, informazioaren aprobetxamendua (internet bera ere barnean izan beharko litzatekeelarik), mapa eta argazkien interpretazioa, eta irakasten jarraitu behar diren beste gauza askoz ere errezagoak: norberaren kirol ekipamendua nola aukeratu edo motxila nola prestatu, eta abar.*

*Formula pedagogiko berriak erabiliko lituzketen ikastaroak, hala nola txangoak eta ibilbideak irakasle-gidari batekin, simulazio informatikoak, Heziketa Fisikorako Euskal Erakundearekiko hitzarmenak egiteko posibilitatea, ....*

*Honelako zeozer batek planteiatzen dizkigun eskakizunak ere aipaturiko hausnarketan eta eztabaidan sartzen dira zeren, azken finean, etorkizuna irudimenezko asuntua baita.*

# El futuro está en la imaginación

NO está claro si somos las personas quienes hacemos cambiar las cosas o son las circunstancias las que nos hacen cambiar a las personas (nadie ha solucionado todavía la primacía del huevo o la gallina), pero lo cierto es que todo está cambiando, algunas cosas muy rápidamente, y que también cambiamos las personas y nuestra forma de actuar en situaciones o actividades que parecen seguir siendo las mismas.

El éxito de la adaptación está en la capacidad de analizar correctamente los cambios y sus tendencias y en utilizar las herramientas adecuadas para afrontar la nueva situación y las venideras.

Dicho esto, nos debemos preguntar si la estructura del montañismo se está adaptando o no a los cambios que le afectan. Se han cumplido ya 75 años de la Federación y 20 años de nuestra conquista del Everest y hemos superado la cifra de 20.000 federados. ¿Esto no significa nada?. ¿Nos estamos dejando llevar o proyectamos el futuro?

Prácticamente todas las circunstancias que hace 30 años constituían la transmisión del montañismo a los más jóvenes han variado sin que dé la impresión, a nivel institucional u organizativo, de que adoptemos nuevas formas de hacerlo acordes al desarollo actual del deporte.

Se trata pues de reflexionar sobre el tema y ésa es precisamente la intención de estas lineas: animar una reflexión que se plantee una nueva dinámica en la organización, funcionamiento e incluso contenidos de las Escuelas Federativas.

En primer lugar, concederles el reconocimiento que les corresponde como transmisoras de conocimientos y actitudes deportivas. A partir de ahí, aprovechar la estructura "comarcal" tradicional para plantear cursos periódicos más ágiles, dinámicos e itinerantes.

Cursos que incorporen contenidos nuevos: metereología, orientación, GPS, avalanchas, conocimiento del medio, alimentación, mantenimiento y puesta a punto, aprovechamiento de la información (internet incluido) interpretación de mapas y fotografías y cosas más sencillas que hay que seguir enseñando, como: elección de equipo personal o preparación de la mochila, etc.

Cursos que utilicen nuevas formas pedagógicas como pudieran ser excursiones y salidas con guía-instructor; simulaciones informáticas, estudiar la posibilidad de un convenio con el IVEF, etc.

Las exigencias que algo así nos plantea, también entran en la reflexión y el debate, porque, en definitiva, el futuro es cuestión de imaginación.

Txema Urrutia